

# **HAURTZARO IKASTOLAKO HARRERA PLANA IKASLEAK eta FAMILIAK**

## 1.- SARRERA

Harrera planak elkar ezagutzea du helburu. Ikastolak ikasle berri hori eta bere familiaren (ezin baitugu haur bat familiatik at ulertu) lehen ezagutza egitea, ahal den neurrian, integrazioa lor dezan ikastola ezagutaraztea.

Ezagutza horrek, prozesu bat suposatuko duen heinean, hasieran eman beharreko pausoak eta lan banaketa zehaztuko da plan honetan.

Bi momentu bereizi behar dira:

- 1.-Ikasle berria irailean, guztiekin batera ikastolan hasten bada.
- 2.-Ikasturtean zehar ailegatzten bada.

## 2.- HARRERAREN ANTOLAMENDUA eta FAMILIAREKIN HARREMANA

### 2.1.- Zuzendaritza eta orientazio departamentua:

Ikaslea zein mailetan eta taldetan kokatu erabakiko dute zuzendaritzak eta orientazio departamentuak ondorengo irizpideak jarraituz:

- **Ikaslearen eskola espedientearen** baitan dagokion mailan eskolatuko da.
- **Estatuan eskolatua egon ez den kasuan, Lehendik eskolatzea egon den ala ez eta** zein modutan **eraman duen eskolatzea aztertuko da** (nongo eskolan, nolako asistentzia klaseetara, zein eratako eskolaratzea...) eta honen arabera ere erabakiko da maila batean ala bestean, talde batean ala bestean...
- **Ama-hizkuntza:** euskara zaintze aldera, Gaztelanarako joera duen ikaslea, estrategikoki egokia izan daitekeen taldean kokatuko da.
- **Maila akademikoa:** ikaslearen maila akademikoa kontuan hartuko da izan ditzakeen ezaugarrien baitan egokien izan daitekeen taldean kokatuko da.

Behin betiko erabakia hartu aurretik, familiarekin edo legezko tutorearekin bilera egingo dute (bietako batek) gurasoak eta ikaslea ezagutzeko.

Datu horiekin ikasketaburua mailako tutoreekin bildu, aurrez hartutako erabakiaren berri emateko eta bere iritzia eskatzeko. Ondoren, kokapenaren azken erabakia hartuko da.

### 2.2.- Zuzendaritza

Guraso edo legezko tutorearekin lehen harremana egingo du. Ikastolaren funtzioa, funtzionamendua, antolaketa eta zerbitzuei buruz informazioa emango die.

Hasierako elkarrizketa: lehenengo une honetan balioztatuko du zuzendaritzak elkar ulertzerik badagoen (ikastolako partaideek ezagutzen

duten hizkuntzak erabiliz), ezinezkoa balitz, itzultzaile bat eskatuko da Hezkuntza Sailak eskaintzen duen teleinterpretazio zerbitzuan (Dualia): **946 562562 / 943 715670**

Jaso beharreko datuak:

- Matrikulaziorako eskatzen direnak: ikastolako matrikula inprimakia betetzeko emango die edo betetzen lagunduko die.
- Eskola ibilbidearen xehetasunak: eskolatua egon den, zein mailatan, non...
- Ikaslearen espediente akademikoa, txostena... eskuratzeko aukerak.
- Euskara, gaztelania edo beste hizkuntzen ezagutza maila
- Familiaren egoera: etorreraren arrazoia, familiaren egoera, lan egoera....

Eskaini beharreko informazioa:

- Ikastolaren ezaugarriak eta antolaketa.
- Funtzionamendu arauak: funtzionamenduko txostena.
- Orduategia eta egutegia.
- Ikasleak behar duen materialari buruz informazioa.
- Espazioa eta kontakturako pertsonak.

Zuzendariak **ikasketaburua eta orientatzailea** jakitun jarriko ditu ikasle berriari buruz. Behar izanez gero, familiari beste hitzordu bat emango zaio aholkularia/orientatzailearekin edo ikasketaburuarekin bilera egiteko.

**2.3.- Ikasle berriarekin** lanean arituko diren profesionalei, beren lanerako beharrezkoa duten ikasleari eta familiari buruzko informazioa emango die aholkulari/orientatzaileak edota ikasketaburuak:

- Tutoreari
- Zikloko irakasleei
- Orientazio taldeari
- Jantokia, garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak,... erabiltzailea izango bada.

## **2.4.- Gela eta taldea prestatu:**

### **2.4.1.-Tutoreak egin beharrekoak:**

Erreferentziatzeko pertsona izango da eta bere betebeharrak honako hauek izango dira:

- Gelakideak informatuko ditu, ikasle berria taldeari aurkeztuko dio.
- Pertxerotan, gelan bere tokia izena jarriko du taldean sarrera emanaz.
- Ikasle berriari harrera egingo dio: izenak ikasi, zaletasunen berri emateko ariketak egin.... Mahai bakoitzean partaideen izenak jarriko direla ziurtatuko du.
- Harrera egiteko jolasak edota dinamikak prestatuko ditu.
- Gelakideen artean lehenengo astetarako ikasle tutorea izendatuko du eta honen eginbeharrak zehaztuko ditu. Bitartekaritza boluntarioa izango da. Ardura hau gelako ikaskideen artean aldatzen joan daiteke.

### **2.4.2.- Ikasle tutore edo bitartekarien egin beharrak:**

- Gelakideekin zubi lanak egingo ditu, gelako dinamikak azalduko dizkio, ikastolaz kanpo elkarrekin harremanetan jartzeko aukeren berri emango dio, euskararen erabileraren garrantziaz hitz egingo dio.
- Ikastolako eremu desberdinak ezagutaraztea, jolas garaietan taldean sartzen laguntzea, gelen aldaketetan berarekin eramatea... eskola bizitzan sartzen laguntzea.
- Gutxieneko funtzionamenduak ikasi bitartean, hau bere itzala izango da eta idatzirik ez dauden baina inplizituak dauden arauen berri emango dio.

## 2.5.- Beste agenteekin harremana

Ikaslearen beharren baitan:

- Orientazio Departamentuko arduradunak Berritzeguneko erreferentearekin edota Gizarte zerbitzukoekin harremanetan jarriko dira.
- Zuzendaritza hizkuntza errefortzua bideratu ahal izateko udaletxearekin harremanetan jarriko da (Euskara teknikaria).

## 3.- Aurre ebaluazioa

- Ikaslearen espediente akademikoa lortu ez badugu, irakurketa-idazketan duen maila aztertuko dugu baita matematikan ere. Beharrezkoa den kasuan, beste froga batzuk ere pasa daitezke. Beharrezkoa izango balitz, Hezkuntza Saileko itzulpengintza zerbitzua erabiliko genuke.
- Ikasleak euskara maila nahikorik ez badu:
  - Hizkuntza garatzeko laguntza eskainiko zaio, ahal dela talde txikietan.
  - Euskararen erabilera eremu anitzetan bultzatzea behar denez, eta hizkuntza hitzuneekin ikasten denez, aisi denbora planifikatzen lagunduko diogu eta euskarazko ikus-entzunezkoak gomendatu.
  - Era berean ekintza osagarrien bitartez, jolasgarrietan eta euskaraz arituko direla bermatzeko ahaleginak egin beharko genituzke.
  - Eskolatua bada euskarazko ahozko lanketarekin batera idatzizkoa ere landuko dugu. Hizkuntzaren funtzionaltasuna, egunero beharko dituen hiztegi eta esapideak landuko ditugu.
  - Euskararekiko salbuespena eska daiteke ikuskaritzan. Salbuespen egoera hau bi urtez bakarrik eska dezakegu. LH 3. ziklotik aurrerako kasuan luzapena eska genezake (ikasturte bakoitzeko ebazpenetan begiratu behar da).
- Atzerapen kurrikularra dagoenean Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP) idatziko da.

#### **4.- Familiarekin harremana**

- Lehenengo harremana zuzendaritza eta orientazio departamentuak egingo badute ere, egokitzapen garaia amaitzean tutorea familiarekin bilduko da.
- Ahal den neurrian Guraso bilera orokorretara gonbidatu eta animatu.
- Ikastolak ohikoak dituen festa eta ospakizunetara gonbidatu eta animatu.

#### **5.- HIZKUNTZAREN TRATAERA**

- Ikasleak euskara ez dakien kasuetan, hasierako harremanerako bi aldeek ezagutzen dugun hizkuntza bat erabiltzea egoki ikusten da, horren bidez komunikazioa eta atxikimendu afektiboa lortzeko.
- Harreman afektiboa lortu ondoren ahalik eta azkarren euskara izango da harremanerako hizkuntza. Beraz, emeki-emeki, euskarak gailendu behar du.